

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Miramongo Eureka! Zientzi Museoa ixtearen gaineko MOZIO ARRUNT hau dakar, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Orain dela gutxi zabaldu da Eureka! Zientzi Museoa, izena aldatu eta 10 urte pasa badira ere Kutxaespazio izenez ezagutzen duena jendeak, itxi eta haren instalazio batzuk Tabakalerara eramane behar dituztela, eta kezka eta tristura handia eragin die berri horrek donostiarrei.

Izan ere, 2001eko urtarrilean ireki zenetik, erreferente bat izan da Miramongo Kutxaspeazioa zientzia-dibulgazioa eta entretenimendua uztartzen. Joaquin Montero arkitektoak proiektatutako gune honek 8.000 metro koadroko lursaila hartu zuen, eta bi mugarri arkitektoniko nagusi ditu: behatoki astronomikoa (36 metro altu da eta Hubble teleskopio espazialari konektatuta dagoen teleskopioa ere badu), eta planetario digitala (14 metro diametroko pantaila erdiesferikoa du).

Bestalde, hango modulu interaktiboak, esperimentu dinamikoak, zientzia gazteenengana hurbiltzeko erabili diren erakusketak, haizearen tunela, Nobel saridun batzuen konferentziak eta milaka haurren gozagarri diren simulatzaileak zientziaren museo honen historiaren parte dira, eta baita Donostiaren historia berrienaren parte ere.

Kutxa Fundazioak bukatzea erabaki du, ordea, gure hirian zientzia-dibulgazioan izan diren bi hamarkada. Haren 2030 Plan Estrategikoak, Kutxaespazio Fundazioaren Patronatuan ordezkariak duten alderdi guztiek aldeko botoa emanda onartu zenak, hala jasotzen zuen. Hori bozkatu eta handik ordu batzuetara suak hartuta bezala hitz egiten zuten alderdi haiek beraiek jarri zuten, patronatuan aldeko botoa emanda, hirian den museorik maiteenetako bat ixteko bidea.

Miramonen dituen instalazioak itxi eta ~~X~~ Tabakalerara aldatzeak, 2.000 metro koadro kenduko lizkioke guneari, eta ez dakigu ezer ~~X~~ planetarioarekin zer gertatuko den ere.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Eureka! Zientzia Museoak oraingo lekuan segitzeko bidea emateko eta lehen baino ere gehiago ahalegintzeko zientzia donostiar gazteen artean zabaltzen.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Eureka! Zientzia Museoak oraingo lekuan segitzeko bidea emateko eta lehen baino ere gehiago ahalegintzeko zientzia donostiar gazteen artean zabaltzen.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Kutxa Fundazioaren Patronatuan ordezkariak duten alderdi politikoei jendaurrean adierazteko akatsa egin dutela gai honetan eta hitz emateko ahal duten guztia egingo dutela Eureka! Zientzia Museoak ordain den lekuan segitzeko.

Donostian, 2021eko azaroaren 5ean.

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea.